

# ELGERA



BERBETAN: **LARA GIL** IBARREKOLANDA INSTITUTUA ERREPORTAJEA: **ORBEGOZO ZIRKUA**

MONOGRAFIKOA: **KULTUR ASTEA SAN ADRIAN INSTITUTUAN**



- 3 IKUS ENTZUNEZKOAK
- 4 ELKARRIZKETA
- 6 INKESTA
- 7 LANBIDE HEZIKETA
- 8 ORBEGOZO ZIRKUA
- 10 BIOANIZTASUNA
- 12 MARKETINA
- 14 KOMIKIA
- 15 BERTSOAK
- 16 OSKITX EGIGURENI ELKARRIZKETA
- 18 KULTUR ASTEA SAN ADRIAN
- 20 ELKARRIZKETA JASONE OSORO
- 22 EREMUKA LANEAN
- 24 ZIG GELA ELKARRIKETA
- 26 BITXIKERIAK



# AURKIBIDEA



# ELGERA

Argitaratzailea: ELGERA LANTALDEA: Deustuko Ikastola IPI, Ellacuria-Zurbaran BHI, Elorrieta-Errekamari LHII, Eskurtze BHI, Harrobia Ikastola LHII, Ibarrekolanda BHI, Ing. Jose Orbegozo HLHI, Kirikiño Ikastola IPI, La Salle Bilbao HLBIP, Rekaldeberri BHI, San Adrian BHI, San Inazio BHI, Txurdinaga LHII, Unamuno BHI, B02ko Hizkuntza Normalizazioko Uibarri Programa eta PREST! aldizkaria.

Inprimategia: Antza. Ale kopurua: 4.800. Webgunea: [www.elgeraldizkaria.wordpress.com](http://www.elgeraldizkaria.wordpress.com)

# Ei! Morgako aterpetxea ezagutzen al duzue?

*2023ko otsailaren 15ean, San Inazio BHIko*

*2. mailako ikasleok Morgara joan ginen hiru egun igarotzera.*

**EGILEAK:** Haizea Marigómez, Morgan Mai, Unai Hernández eta Nerea Ruiz.



Morga Bizakaian dagoen herri bat da. Herri hau hainbat auzoz osatua dago: Meakaur, Morgaondo, Oñarte, Eskerika eta Andra Mari. Gu Meakaur auzoan egon ginen eta horixe bera zen ostatu hartu genuen etxearen izena. Honen ondoan eliza eta hilerria daude, baita frontoi bat ere handik gertu, eta bertan aisialdia igarotzen genuen.

Egonaldiaren helburua pelikula bat egitea izan zen. Joan aurretik, filmean izango genuen rola azaltzera etorri ziren hango irakasleak. Hitzaldi hartan denetariko informazioa jaso genuen: kameraren funtzionamendua, plano motak, mikrofono motak...Herrira heldu bezain laster lanean hasi ginen. Ikasleak bi taldetan banatu gintuzten bi film egingo genituen eta. Hasteko, kaleari egin beharreko grabaketak egin

genituen eta geroago, etxe barruan egin beharrekoak. Bazkal orduan taldeetan banatu ginen mahaiak zerbitzatzeko eta jasotzeko. Talde berberak izan genituen lo egiteko eta mahaietan jateko.

Arratsaldeko bostetan amaitzen genituen grabaketak eta horien ostean hainbat jarduera egin genituen, esaterako, errealitate birtuala ikusi edo beste auzo batean arratsaldea eman. Gauean ere bestelako gauzak egiten genituen irakasleekin, jolasak eta diskoteka, hain zuzen.

Begiraleei esker, grabaketa orduak oso azkar igaro ziren eta momentu dibertigarriak pasa genituen haiekin. Lan orduak dinamikoak izan ziren. Oso esperientzia polita izan zen!

# Zuen aulki hutsak, gure noraeza

*Ibarrekolanda BHIko Arte Eszenikoetako 2. mailako ikasleek urritik daramate ‘Zuen aulki hutsak, Gure Noraeza’ antzezlan prestatzen. Elkarrizketa egin diegu muntaia honen nondik norakoak ezagutzeko.*

**ELGERA:** Antzezlan honetan etxerik gabe eta bazterkeria egoeran dauden emakumeen gaia jorratzen duzue. Nola izan zen proiektuaren abiapuntua? Nondik sortu zen ideia?

**IGOR:** Urtero Bizitegi Elkartearekin kolaboratzen dugu klasean etxerik gabekoen problematika lantzen. Horregatik, eta Ibarrekolandan Arte Eszenikoak lantzen ditugula jakinda, antzezlan bat egiteko eskatu ziguten etxerik gabeko emakumeen gaian sakontzeko. Beraz, lan hau enkargu horren fruitua da.

**ELGERA:** Zuen Aulki Hutsak Gure Noraeza antzezlanaz zeuk idatzi, Igor, izenburua berezia da. Nondik dator?

**IGOR:** Obra osoan zehar aulki hutsak agertzen dira, gizartean lekurik gabe geratu diren pertsonen metafora gisa. Horrez gain umeen “aulki-jolasa” ere egiten dugu, baina modu ironiko batean. Gure jolasean, umeenean ez bezala, aulki gehiago daude jokalaria baino. Hala eta guztiz ere, pertsona bat lekurik gabe uzten dute. Titulu honekin salatu nahi dugu, bere kiderik ahulenak alde batera ahazten dituen gizarte bat noraezean dabilela. Izan ere emakume hauen errealitate gordinaren atzean dagoena ez da zorte txarra, gizarte bidegabekeria baizik.

**ELGERA.** Antzezlan honek oihartzun handia izan du, ETBn ere elkarrizketatu zaituztete. Zenbat emanaldi egin dituzue?

**LARA:** Momentuz 7 aldiz egin dugu antzezlan. Hiru aldiz gure institutuan; bi aldiz Homeless Film Festivalean Bizkaia Aretoan, hemen Francis Doctor Deseo taldeko abeslariaren kolaborazioa izan genuen; martxoaren 8an Bermeoko institutuko ikasleen aurrean aritu ginen Nestor Basterretxea aretoan eta azkena Gernikako Lizeo Antzokian. Azken emanaldi honetan, 340 ikusle izan ziren.



**ELGERA.** Nolako izan da ikusleen jarrera emanaldi horietan?

**IRATI.** Harrera oso ona izan da leku guztietan. Bereziki poztu gintuen Bizitegiko emakumeek emandako erantzunak. Nolabait, zuk salatzen duzun egoera horretan egon diren emakumeak hunkitu direla eta zure lanarekin ados daudela ikustean, konturatzen zara obrak merezi duela.

**ALBA.** Bitxikeria moduan esan behar dut, euskaraz ez dakiten pertsona askok esan digutela obra ulertu egiten dela, hizkuntza ulertu gabe.

**ELGERA.** Zer ematen dizue antzerkiari orokorrean?

**LEIRE.** Ni berez lotsatia naiz eta antzerkiari esker orain ez naiz jendaurrean hitz egitearen beldur.

**ITXASO.** Niri beti kostatu izan zait nire emozioak adieraztea, orain ausartagoa naiz nire sentimenduak adierazteko.

**EDURNE.** Gure euskara maila ere, nabarmen hobetu da. Entseguan gure arteko hizkuntza nagusia euskara izan da eta horrek jario handia eman digu.

**IRATI.** Antzerkia ez da bakarrik testu bat idaztea, pertsonaiaren azalean jarri behar zara eta bere emozioak ulertu eta sentitu. Horrek lagundu dit besteen sentimenduak ulertzen, haien lekuan jartzen eta enpatikoagoa izaten.

#### **ELGERA: Eta lan honek?**

**ALBA.** Kalean dauden pertsonak ikusezina sentitzen dira. Gehien mintzen dituen ez da jendeak dirurik ez emateak, baizik eta ez begiratzeak. Guk hori kontatzen dugu.

Ni antzezlari honekin hasi nintzenean pixka bat hipokrita sentitzen nintzen. Eszenatokian gauza bat esaten nuelako, baina gero kalean kontrakoa egiten nuen. Lan honi esker, orain koherenteagoa naiz.

**NEREA.** Ni nire pertsonaia prestatzeko nire amaren bizitzan oinarritu naiz. Nire pertsonaia Kolonbiatik amama zaintzera etorritako pertsona da. Pertsonaia arrazakeria eta klasismoa pairatzen ditu eta azkenean kalean amaitzen du.

Askotan uste dugu horrelako gauzak gugandik oso urrun daudela, baina uste duguna baino hurbilago daude.



*Guztioi gustatzen zaigu bizitasuna duen auzo batean bizitzea eta bertan danetarikoko dendak egotea. Baina, gure erosteko ohiturak aldatzen ari direnez, gero eta gehiago joaten gara kotxez merkatal zentru handietara, interneten bidez erosten dugu besteak beste. Gure auzoan, merkataritxikiek Deustu Bizirik elkartearen sortu zuten, hain zuzen ere, auzokideei gogoratzeko denda txikiek duten garrantzia auzo*

## ZURE FAMILIAK NON EGITEN DITU OHIKO EROSKETAK?

### ZER EROSTEN DUZUE DEUSTU AUZOAN?

### INTERNETEN BIDEZ EROSTEN DUZUE?



#### AINARA

Familiak Mercadona, LIDL-en edo Eroskin egiten ditu erosketak. Denda handi hauek auzoan bertan ditugu gainera. Auzoan berriz, fruta edo haragia erosten dugu. Hain zuzen ere, Arangoitira joaten gara produktu hauen bila. Azkenik, interneten arropa erosten dugu.

#### JOKIN

Janaria eta garbitzeko produktuak Deustuko Eroskin eta denda txikietan erosten ditugu. Bestalde, egunero behar ditugun gauzak erosten ditugu auzoan. Interneten bidez, arropa bakarrik erosten dugu.

#### IRATI

BM, Mercadona edo LIDL supermerkatuetan egiten ditugu erosketak potoloak etxean. Guk egia esan dena erosten dugu denda handietan. Interneten bidez gutxitan erosten dugu. Arropa adibidez Bilboko Kale Nagusian erosten dugu, denetarik baitago bertan. Estilo guztietako arropa eros dezakezu bertan. Eta ez bakarrik arropa, mota askotariko dendak baitaude.

#### MIKEL

Etxean Deustuko hainbat dendatan erosi ohi dugu, janaria, arropa... behar dugun guztia auzoan erosten dugu. Bestalde, internetetik ere sarritan erosten dugu.

#### AINES

Etxean LIDL, Eroski edo Mercadona supermerkatuetan egiten ditugu erosketak handiak. Fruta, haragia eta horrelakoak berriz, Deustuko saltokietan erosten ditugu eta azkenik, arropa interneten bidez erosten dugu baina ez askotan. Arropa eroatera Bilboko Kale Nagusira joateko ohitura daukagu, bertan denetarik dago.

#### MIKEL

Deustun bizi nintzenean bertako Eroskin, Bertizen, eta fruta denda txikietan erosten genuen. Orain Santurtzin bizi naiz eta han egiten ditugu bertako erosketak. Interneten bidez arropa, mugikorrak eta etxeko tresnak erosten ditugu.

# TELEKOMUNIKAZIOKO INSTALAZIOKO IKASLEEK EGINDAKO BI PROIEKTUEN AURKEZPENA




Txurdinaga Lanbide Heziketako Erdi mailako Telekomunikazio Instalazioko 1. mailako Egoitz eta Unai ikasleek ikasturte honetan zehar egindako bi proiektu aurkeztuko dizkigute.

Aurkeztuko duten lehenengo proiektua domotika eta Alexarekin harremanduta dago. Izan ere, etxebizitza baten oinarrizko instalazio elektrikoa egin ondoren, hainbat etengailu adimendun gehitu dizkiote instalazioari. Horri esker, etxebizitzako gela bakoitzeko argiak kontrolatu daitezke eta gainera, ahotsaren bitartez kontrolatzeko aukera ere ematen dute, Alexa laguntzaile birtualari esker. Alexak ikasleek diseinatutako panel bakoitza piztu eta amaturu dezake, honi agindu zehatz bat emanaz gero.

Bigarren proiektuari dagokionez, elektronika sailko bulegoa domotizatzeko diseinua eta instalazioa egin dute, ohiko eskuzko pertsianaren ordez, motorrak jarri dizkiete eta orain domotikoki igo eta jeitsi daitezke eskolaren irekiera eta itxiera ordutegia iristean. Hori bakarrik ez dute domotizatu, bulegoko argiteria ere modu berean funtzionatzen du eta gainera, pertsianen kaxetatik bero-galerak saihesteko erabat isolatu dituzte.

Instalazioa egiteko, aldeztu aurretik departamentuan zeuden PVC hodiak eta erregistro-kaxak aprobetxatu, ikasleek hodiak luzatu dituzte pertsiana-kutxetara eta aipatutako motorrak instalatu dituzte.

Horretarako, PLC kontroladorea, kontaktorea eta SONOFF mini etengailu adimenduna instalatu ondoren, argien eta pertsianen programazioa sortu zuten, lehen aipatu bezala, modu automatikoa nahiz eskuz nahi denean igo eta jeisteko. Bestalde, Alexari esker, sistema ahotsaren bidez kontrola daiteke, argiak piztuz eta pertsianak igoz, "Alexa, egun on!" esatean. Era berean, Alexari agur esaterakoan, hurrengo egunera arte argiak itzali eta pertsianak jaitziko ditu.



ESKANEATU QR KODEA ETA  
IKUSI BIDEA!!



# ORBEGOZO ZIRKUA

*Kaixo irakurle guztioi; Kurtsoa badoa aurrera  
eta karnabal sasoia heldu da.*



Aurten bai ospatuko ditugula inauteriak beti bezala, denok elkarrekin murrizketarik gabe. Asko pentsatu eta gero, eskolan zirkuko pertsonaiez mozoratuko garelako erabaki dugu.

Haur hezkuntzako haurrak pailazoz joango dira, erdi-mailako ikasleak mago eta nagusiak mimoz. Irakasleen mozorroak ondoen gordetako sekretua izan zen eguna iritsi arte.

Inauteriei usain berezia emateko tostadak egitea erabaki genuen. Horretarako, bezperan tostaden oreak egin ziren hurrengo egunean frijitzeko. Auzotik kalejira egin baino lehen jan genituen indarrak hartzeko. Egia esan, oso gozoak atera ziren. Ordua heldu zenean eskolatik atera eta gure auzotik, gora eta behera ibili ginen abesten eta dantzatzen. Primeran pasatu genuen!







# BIOANIZTASUNA

**EGILEA:** Miren Isla eta Peio Balado DBH 3. maila - La Salle Bilbao HLBHIP



Jakingo duzuenek, ekosistemen suntsipenak, larrialdi klimatikoak, kutsadurak, espezie inbaditzaileek, nekazaritzak eta industriak, gure planeta uste duguna baino arinago kontsumitzen dute. Hala ere, azkenaldian izugarriko proiektu bat egin da, herritarren zientziaren eta mundu osoko bioaniztasunaren ikerketaren alde lan egiten duena: Bioblitz hain zuzen ere. Proiektu honek, geure laguntzari esker inguruneko bioaniztasuna ikertzeko erraztasunak ematen dizkie zientzialariei, munduarentzako etorkizun hobea bilatuz. Proiektu honek onura ugari ditu: lehenik eta behin, natura gazteei hurbiltzea du helburu,

Bioblitz aukera ezin hobea da zientzia maite dugunontzat eta planetan gertatzen denaren kontzientzia dugunontzat. Proiektu hau eginez, DBHko bigarren zikloko zientzialariak sentitu gara, biologiatik eta ikerketatik gertuago hain zuzen. Izan ere, egindako guztia baliagarria izan daitekeela jakiteak hitzik gabe uzten gaitu.

Proiektu hau La Salle Bilbao ikastetxeko mota guztietako ikasleentzat irekita dago; hala ere, bigarren hezkuntzako ikasleak izan gara proiektuan aktiboki parte hartu dugunak.

2022ko abenduaren hasieran, proiektu honen azalpenak lehen eskutik jasotzeko aukera izan genuen DBHko talde bakoitzeko bi ikaslek, aurrerago proiektu hau ikasgela osoari aurkezteko baldintzarekin. Bioblitz zenbat eta jende gehiago, hobe! Horrela, aplikazioa lehen aldiz aurkeztu ziguten egunean egindako probaz gain, handik gutxira, gure talde osoarekin ikastetxean zehar espeziaz bilatzeko aukera izan genuen. Honi esker 15 argazki inguru lortu ditugu, eskolako perimetrotik irten gabe, lorpen itzela!

biodibertsitatearen eta ingurumen-osasunaren garrantziari buruzko kontzientzia sortuz. Horrela, teknologia berriak modu kolaboratiboan ere erabiltzen dira zientzia eta hezkuntza helburuetarako. Gainera, aipatu dugun moduan, herritarren zientzia ematen da, hau da, profesionalekin batera espezializatu gabeko publikoaren inplikazio aktiboa ematen da. Egiten duguna alferrikakoa dela pentsa dezakegun arren, oso oker gaude, izan ere, ikerketa-metodo horri esker prozesua modu nabarian arintzen dugu. Datuak jasotzeari esker, zientzialariek prozedura zuzenean egiteko aukera daukatelako.

Zeuen buruari galdetuko diozue zer irabazten dugun, zein den proiektu honen mamia. Proiektu honetan ikastetxe askok hartuko dute parte. Guztiek denbora bera eta antzeko eremu geografikoa dute, baina inguruneak ezberdinak izango dira, irizpide horiei jarraituz Bilboko bioaniztasun ia osoa bildu ahal izango dugulako. Behin epea amaituta, bioaniztasunari buruzko daturik gehien lortzen duen zentroa izango da txapelketa hunkigarri honen irabazlea.



Gure ustez, Bioblitz aukera ezin hobea da zientzia maite dugunontzat eta planetan gertatzen denaren kontzientzia dugunontzat. Aplikazioarekin izan dugun esperientzia bikaina izan da, zeregina egiteko erraztasunari esker oso dibertigarria eta arina iruditu zaigulako. Aldi berean, hain proiektu irekia eta ulerterraza da, ezen edozein pertsonak parte har dezakeen, eta bereziki haurrek izugarri goza dezakete, lehiaketak ematen dion txinpartari esker. Proiektu hau eginez, zientifikoak sentitu gara, biologiatik eta ikerketatik gertuago. Izan ere, egindako guztia baliagarria izan daitekeela jakiteak hitzik gabe uzten gaitu. Beraz, jendea parte hartzera animatu besterik ezin dugu egin. Ez izan lotsatia, anima zaitetz!

## Marketina, ekonomia zirkularra eta euskara ardatz Harrobia Ikastola eta Bernat Etxepare lizeoaren arteko elkartrukean

*Urtarrila aldean elkartrukea egin dugu Bilboko Harrobia ikastolako Marketineko bigarren mailako ikasleok Baionako Etxepare lizeoko Merkataritza zikloko ikasleekin. Xedea, elkarlanaren bitartez eta sinergiak probestuz, ekonomia zirkularra eta marketina euskaraz lantzea izan da.*



Harrobiaren eta Etxepareren arteko elkarlana ordenagailu zaharrak biziberritzen dituen Elkartenetetik dator, Harrobia ikastolatik sortua eta Seaskarekin harremanetan dagoena; bertako ikasleentzat propio garatutako Txikilinux softwarea errekuperatutako ordenagailuetan eskuragarri jartzen dute. Baina beste urrats bat ematea erabaki dugu zentro biok. Hala, Baionako ikastolan eskaintzen den merkataritza zikloko ikasleek enpresa proiektu bat garatu behar zutela profitatuz, Marketin zikloko ikasleen laguntza izan zezaketela ikusi zuten eta, mailetan eginda, Bilborantz abiatu ziren Harrobia, Elkartenet eta Reciclanet ezagutzera.



Goizean goiz Baionatik abiatuta, Bilbora heldu eta Harrobiara hurbildu ziren Etxepareko ikasleak. Ikastola ezagutzeaz gain, lan-saio bat izan zuten Marketineko ikasleekin batera Ilargi ikaslekooperatibaren beharrak zeintzuk ziren jakiteko. Bertan marketineko arlo anitzetara buruzko aholkularitza eman genien: Ilargi kooperatibaren konpetentziaren analisia, kooperatibaren logoa eta leloa, kooperatibaren sare federatuak, kooperatibaren produktuaren salmenta-prozesua eta bestelako komunikazio-diseinuen gaineko aholkularitza.



Ilargi Ikasle Kooperatibari emandako marketineko aholkularitza saioaren ostean, Marketin Solidarioa ikasle-agentziatik zerbitzu anitzak eskeini dizkiegu. Batetik, Ilargi Ikasle Ilargi kooperatibarentzat imago tipo berria sortu dugu, non kooperatibaren logoaren erabilpenaren ingurukoak zehaztu ditugun. Horrez gain, Ilargi ikasle-kooperatibaren webgunea garatu dugu, Wordpress tresnaren bitartez eta kooperatibaren komunikaziorako diseinu-txantiloak ere garatu ditugu, hala nola, aurkezpen komertzial korporatiboa, bisita-txartela eta kooperatibaren triptikoa.

Horrez gain, merkataritza eta marketin zikloko ikasleok Miarrizteko Studio Waaz komunikazioa agentzia bisitatzeko aukera izan dugu; euskal proiektuak, nortasuna, sormena eta pasioa osagai dituen agentzia euskalduna.

Agentziako kofundatzailea den Emilek hainbat bezerorekin izandako esperientziei buruz aritu zitzagun. Horrez gain, epe labur batera adimen artifizialak izango duen hazkundea azpimarratu zigun. Lanaren garrantziaz ere, bere esanetan – behar dira arriskuak antzeman, bederatz aldiz eroriko zira, bainan hamargarrenean arrakasta erdie-tsiko duzu -. Emilek gaineratu zuenez, kitarra jotzen ikasteko 20 ordu behar dira, abesti gehienak 4 akorderekin egin baitaitezke.

Aitzitik, ondo jotzeko 10.000 ordu behar dira. Marketin agentzia bateko lehenengo urratsak gitarra jotzeko bidaia bezain polita dira!

Etxepareko instalazioak ezagutzeko paradarik ere izan zen, baita bisita gidatu bat Baionako Alde Zaharretik eta lanari ekiteko ere. Euskal moneta proiektuko Eva Mutik Lapurdi, Baxenafarroan eta Zuberoan euskoa erabiltzeko kanpainaren aurkezpena egin zuen. Tokiko moneta merkatu-sare bat sortzean datza, non kapitala etengabe mugitzen den, baina ez den sare horretatik irteten. Euskal monetaren kasuan 3,5 milioi eusko dauka zirkulazioan (eusko 1= 1€), 4.000 erabiltzaile partikular eta 1.300 profesionalen sarea da. Tokiko ekonomia sustatzeaz gain, trantsizio ekologikoa edo euskararen erabilera bezalako balioak ere sustatzen dituzte.

Bide hau hasi baino ez da egin Harrobia Ikastola eta Bernat Etxepare lizeoarentzako. Izan ere, bidaia honetatik etorkizunean elkarlanean aritzeko proiektu andana jaio dira. Gauzak honela, merkataritza eta marketin arloan egindako elkarlan hau, beste arlo eta ziklo batzuetara zabaltzea aurrakusten da, kirol arlora edota 3D eta errealitate birtual eta areagotuaren arlora, beste zikloetako ikasleei aukera emanez gure moduko ikas-esperientzia izan dezaten.



**EGILEAK:** Marketina bigarren mailako ikasleak.



LUMIÈRE ANAIEN PELIKULA - Egilea: Garazi Muguruza



Egilea: Jon Ander

LUMIÈRE ANAIK - Egilea: Jaione Pereda



# IKASTOLAKO JANTOKIA

*Jantokiko enpresa  
Gurea da gasca  
Ta gordinik ematen  
digutela pasta  
Arrainak gure artean  
Ez du arrakasta  
Beraz ez jan askorik  
ematen du nazka.*

*Jantokira joatea  
da gure tortura  
Membrilloa lapurtzea  
da gure ohitura  
Jaten dugun bakarra  
ogia ta ura  
Etxean bazkalduko  
genuke gustura*

*Etxeko janaria  
Hori bai goxoa  
Gainera bazkaltzeko  
Tortilla osoa  
Jantokietan berriz  
Hori frakasoa  
Bost kilo jaitsi ditut  
Hori arazoa*

*Arrainaren testura  
ez da atsegina  
Entsaladak ez dauka  
Inoiz ez ozpina  
Jarrantuz gero aldatu  
nahi dugu iruzkina  
purea ogi gabe  
baita janezina*

EGILEAK: Jare Eguzkitza Landa, Erika Bravo Loizate, Elise Gomez Vidorreta, Nile Iñiguez de Onsoño  
Mardaras, Kattalin Urriz Lopez



# “Ondo antolatzen bazara, edozer lor dezakezu”

*Ellacuria-Zurbaran BHI ikastetxeko Batxillergoko lehen mailako ikaslea den Oskitx Egiguren Santamariak ibilbide luzea du txirrindularitzan eta berriki Benidormen jokatu den munduko kopako txapelketan hartu du parte. Hona hemen DBHko laugarren mailako ikasle talde batek egindako elkarrizketa.*



## **Noiz eta zergatik hasi zinen txirrindularitza praktikatzan?**

Lau urterekin hasi nintzen bizikletan ibiltzen eta sei urterekin nire lehenengo taldean sartu nintzen, “Euskadi Gela Pedagogikoan”. Eta hortik aurrera ez naiz gelditu: entrenamenduak, lasterketak... nire bizitza txirrindularitzaren gainean eraiki dut.

## **Noiz eta nola hasi zinen txapelketetan?**

Nire aitari asko gustatzen zitzaion txirrindularitza, batez ere mendikoa, eta konturatu nintzen nik ere gustuko nuela. Hortik aurrera, talde batean sartu nintzen gaur egun arte.

## **Txirrindularitzan badago modalitaterik?**

Bai, mendiko bizikleta, errepideko bizikleta eta ziklo-krosa dira ohikoenak eta hauen artean maratoiak edo eguneko lasterketak ezberdintzen dira.

## **Ziklo-krosaz gain, beste modalitatearen bat lantzen duzu?**

Bai, orain mendiko bizikletan ari naiz batez ere eta errepideko bizikleta pixka batekin tartekatzen dut. Baina, batez ere, mendikoa eta ziklo-krosa.







### **Nolakoak dira entrenamenduak? Alde teknikorik al dago?**

Astearen arabera, entrenamendu gehiago edo gutxiago egiten ditugu. Beti daude lasterketa zehatz bat prestatzeko karga asteak edo asimilazio asteak. Eta, beno, garrantzitsua da alde teknikoa lantzea ere, batez ere, ziklo-krosean; bizikletatik jaitsi behar garelako, bizikleta sorbaldan jarri eta horrelako gauzak. Hori dela eta, astean behin behintzat, teknika lantzeko saio bat egitea garrantzitsua da.

### **Nola lortu duzu klaseak eta txapelketak aldi berean eramatea? Estresantea izan da?**

Beno, bai, estresa sortzen du. Baina azkenean ondo antolatzen bazara, edozein gauza lortu dezakezu. Kasu horietan, egun edo momentu bat gelditu, pentsatu zer egin edo ikasi behar dudan eta egiten dut.

### **Nolakoa izan zen pandemia garaia?**

Pandemia garaian, ezin izan nintzen geldi egon. Denbora osoan “rodilloan” edo “core” ariketak egiten egon nintzen. Ezin nuen bizikleta alde batera utzi.

### **Inoiz pentsatu duzu ziklo-krosa uztea? Zergatik?**

Ez, oraingoz niri gustatzen zaidana da, eta ez dut utziko. Ezin dezaket ikusi nire bitzta txirridularitarik gabe.

### **Saririk lortu al duzu? Zaila izan da saria lortzea?**

Azkenean, guztiok egiten dugu lan lasterketaren bat irabazteko, baina, zaila da lortzea. Egia esan, sariren bat lortzean, pentsatzen duzu asko egin duzula eta egindako lana ikus dezakezu. Horrek asko pozten zaitu baina, kontziente izan behar duzu oso zaila dela lorpen horretara heltzea.

### **Esan digutenez, Valentziara joan zara lehiatzera. Nolakoa izan da esperientzia?**

Azkenean, puntuak lortzeko, hemendik kanpora joan behar duzu UCI mailara edo beste txapelketa handiagoenetara heldu nahi baduzu. UCI puntuak oso garrantzitsuak dira; zenbat eta UCI puntu gehiago eduki, aukera gehiago baitaude hemendik kanpo konpetitzeko.

Gainera, UCI puntu bakarrak Espainiako txapelketetan lor daitezkeen puntu guztiek baino balio handiagoa du eta horrek parte hartuko dituzun lasterketetan lehen multzoan ateratzeko aukera ematen du, zuk baino puntu gutxiago dituztenak zure atzetik aterako direla ziurtatzen duzularik. Hau ikusita, familia osoak sakrifizio handia egin du Valentziara joan ahal izateko. Hura beste eremu mota bat da, oso sikua, ez zait asko gustatzen, egia esanda. Baina, oso esperientzia polita izan da hemendik ateratzea.

### **Laster itzuliko zara lasterketetara? Nola prestatuko zara?**

Igande honetan, eduki dut nire lehenengo lasterketa. Jada sei edo zazpi aste daramatzat entrenatzen. Orain hasi dugu denboraldia eta lehiatzeko egunak zehazten ari gara. Begiz jota ditugu Espainiako eta Euskadiko txapelketak eta hauek prestatzeko bidea pausoz pauso ari gara egiten entrenatzailearekin batera.

### **Zer egiteko edo izateko ideia daukazu etorkizunean?**

Ikasi nahi dudana Jarduera Fisikoaren eta Kiro-laren Zientzietako gradua (INEF) da, eta entrenatzailea edo heziketa fisikoko irakalea izatea gustatuko litzaidake.



# KULTUR ASTEA SAN ADRIAN INSTITUTUAN

Otsailaren 23an eta 24an, kultur astea antolatu zuten San Adrian ikastetxean. De-  
netariko jarduerak egin zituzten: euskal idazleen hitzaldiak, esperimentu tailerrak,  
herri kirolak, gidoilarien hitzaldia...


## Jasone Osoro idazlea, DBHko 1. mailan

Jasone Osoro San Adrian institutura joan zen, DBHko 1. mailako ikasgela guztietan Jara, bikiak eta bikoteak liburu irakurri zutelako. Hitzaldian, irudimena oso garrantzitsua dela esan zien idazleak ikasleei, eta NASAn imajinarioa neurtzeko erabilitako proba bat azaldu zuen. Proba horretan, sardexka bat hartu eta hori hobetzeko ideiak eman behar zituzten. Emaitzekin harrিতuta geratu ziren: haurrek helduek baino askoz ideia gehiago izan zituzten. Jasonek ikasleei gaitasun hori ez galtzeko esan zien. Hitzaldia bukatzeko, ikasleek galderak egin zituzten eta, ondoren, liburua sinatzeko eskatu.




## Urrezko euria, DBHko 2. mailan

Zer gertatuko litzateke gardenak eta likidoak diren bi disoluzio nahastean? Nahaste berria ere gardena eta likidoa izango ote da? Zientzian magia egitea ere posible denez, galdera horiei erantzuna emateko, ikasleek erreakzio kimiko hau eraman zuten aurrera:



Lehenengo sorpresa zein izan zen? Aurretik prestatuta zituzten uraren itxurako bi disoluzio nahastean, berehala kolore horiko beste nahaste bat lortu zuten ikasleek. Bertan, alde batetik, gardena zen produktu bat zegoen eta, bestetik, horia zen solido bat (PbI<sub>2</sub> produktua). Azkenik, disoluzio horia berotu zuten, alde batetik, solido horia likidotik bereizteko eta, beste aldetik, solidoak zeuzkan ezpurutasunak (zikinkeriak) kentzeko birkristalizazio deitzen zaion prozesuaren bitartez. Puntu honetan azkeneko sorpresa izan zuten: purpurina lortu zuten! Honi linternaren argia emanda eta laborategia ilunetan egonik, dir-dir egiten zuela ikusi zuten.



### Herri kirolak, DBHko 3. mailan

Kultur astean egindako ekintza hoberenentariakoak herri-kirolak izan ziren. Iraultza izeneko mutil bat etorri zen eskolara herri-kirolak antolatzeko eta azaltzeko. Ekintza klaseka egin zuten, eta klasea hiru taldetan banatu ostean jokoekin hasi ginen.

Hiru joko egin zituzten. Lehenengoa lokotxekin izan zen. Lokotxak banan-banan arinen kendu eta berriro jartzean datza. Bigarren jokoan, pilota bat bota behar zioten haien taldekide bati eta hartzen bazuen gero eta urrunago jarri behar zuten. Eta hirugarrena ere lokotxekin izan zen. Lehenengo ahalik eta lokotx gehien sartu behar genituen saski batean, eta lortutako lokotxekin beste taldeek baino dorre altuagoa eta sendoagoa egitea izan zen helburua. Oso giro ona egon zen orokorrean. Taldeen artean lehia sortu zen eta oso ondo pasatu zuten ikasleek. Denak egon ziren ados: hurrengo urtean errepikatu egin nahi dute.



### DNAREN ERAUSKETA, DBHko 4. mailan

Denok entzun dugu DNA zer den. Molekula horretan izaki bizidun baten informazio genetiko guztia sartuta dago. Baina nolakoa da fisikoki? Zein tamainakoa da? Erantzun horiek aurkitzeko, 4. mailako ikasleek banana zati batean dagoen DNA atera behar izan zuten laborategian. Ikasleen iritziz, oso interesgarria izan zen, ikasturtean zehar ikasi dituzten metodoak erabili zituztelako.



### Igor Salutregi gidoilaria, Batxilergoko 1. mailan

Igor Salutregi Batxilergoko 1. mailako ikasleengana joan zen, bere gidoilari ibilbideari buruz hitz egiteko. Hitzaldiaren hasieran, ikasleei gidoi bat zer den eta nola egiten den azaldu zien. Hala ere, unerik interesgarriena Salutregiren "Azken partida" film laburra erakutsi ondoren iritsi zen. Laburmetraia horretan, heriotza ume txiki baten ikuspuntutik agertzen da. Saioa bukatzeko, ikasleak gidoilari lanetan aritu ziren taldeka. Laburmetraia-ren gidioa eman zien Salutregik, baina desordenatuta zegoen. Orduan, ikasleek euren ezagutza baliatuta ordenatu egin behar izan zuten.



Martxoaren 7an Jasone Osoro idazlea institutura etorri zen. Ezekiel nora ezean liburua irakurri dugu, eta galdera batzuk prestatu genituen Jasonek erantzuteko. Hemen duzue elkarrizketa; zuen gustukoa izatea espero dugu.

**EGILEAK:** Unamuno institutuko DBH2-Ako ikasleak

### **Zerk inspiratu zuen Ezekiel liburua?**

Ezekiel idatzitako aurretik Jara idatzita neukan, eta beste argitale-txe batek gazteentzako zerbait egiteko esan zidan. Bai Jaran eta baita Ezekielen ere, nire gaztaroa izan da inspirazio iturri nagusia, nik bizitakoa, ikusitakoa... Ezekielen oinarria, beraz, bizitza bera da.

### **Zergatik aukeratu zenuen Ezekiel izena?**

Izenak izana ematen dio pertsonaiari batzuetan, izena irakurtzean pertsonaiari buruzko informazioa jasotzen dugu. Ezekiel izena niretzat berezia da; Itoizi taldea oso gustoko nuen, eta taldearen disketako bat Ezekiel da. Omenaldi txiki bat egin nahi izan nion Itoizi.

### **Beste Ezekiel bat idatziko duzu?**

Ez, etapa hori bukatu da. Nahiago dut beste proiektu batzuetan lan egin.

### **Idazten duzunean, orokorrean, zein da zure inspirazioa?**

Ideiak etorri egiten dira batzuetan, eta beste batzuetan ekarri egiten ditugu. Enkargua bada, ekarri, eta etorri edozein momentutan etor daiteke ideia bat. Ezekiel idazteko enkargua egin zidatenez, ekarri egin nuen ideia. Dena dela, bizitza dago beti oinarrian.

### **Idatzitakoan artean, zein duzu libururik gustukoena?**

Gustukoena hitza albo batera utzi, eta beharrezkoena esango dut. Lehenengoa. Ez da gehien gustatzen zaidana, baina hasiera izan zen; hor dago bere balioa. Idatzitakoan gauza batzuk orain ez zaizkit asko gustatzen, baina idazketa ikasketaren prozesua da, bizitza bera bezala, eta prozesu horretako zati gisa onartzen ditut.

### **Noiztik idazten duzu?**

Bederatzi-hamar urterekin hasi nintzen. Nire bailarako literatura-lehiaketetan txikitatik hartu dut parte. Irakurzaletasunak eraman nau idaztera. Literatura ondo sentitzeko, ikasteko, mundua ulertzeko eta libre sentitzeko modua da. Irakurtzeak eta idazteak hori guzti hori ematen didate.

### **Zein izan da gehien kostatu zaizun liburua?**

Bigarrena. Emakumezko gutxi zegoen garai hartan euskal literaturan, eta bi ondorio izan zituen horrek: famatua egin nitzen (alde ona), eta batzuen ustez liburuaren arrakastaren arrazoia ni emakumea eta gaztea izatea izan zen.

Lan handia izan zen; idaztea moda baino gehiago zela erakutsi nahi nion neure buruari, lortutakoa zorte onaren ondorioa ez zela frogatu.

### **Zein Ezekiel duzu gustukoago, lehena edo bigarrena?**

Lehenengoari kariño handiagoa diot, lehen aldiek balio berezia dute beti.

### **Ezekielek egin duena egingo zenuke?**

Ni ez naiz Ezekiel. Idazlea aktorea da, pertsonaien larruan sartzen da, baina ez da haietako inor. Fikzioa librea da.

### **Zein idazle gustatzen zaizu?**

Asko irakurtzen dut. Garai batean Irene Nemiroski. Euskaldunen artean Katixa Agirre, Eider Rodriguez, Miren Agur Meabe... Sara Mesaren lan guztiak irakurri ditut. Irakurtzean probatu egin behar dugu, gustatzen ez zaiguna utzi, gure estiloa aurkitu. Garbi daukat irakurtzea oso baliagarria dela.





### **Zein da zure libururik famatuena?**

Jendearen arabera Jara, orain ere berrargitaratzen da. Ezekiel ere nahiko ezaguna da.

### **Zeintzuk izan ziren zure lehen irakurketak?**

Uf... 51 urte dauzkat, eta zaila da gogoratzea. Gauza bat ondo gogoratzen dut, bai, ama eta amamaren kontakizunak, istorioak kontatzen zizkidaten, eta ikaragarri gozatzen nuen. Gaztetan oso komikizalea nintzen.

### **Harry Potter gustatzen zaizu?**

Ez dut irakurri. Umetan genero fantastikoa gustatzen zitzaidan, baina Harry Potter iritsi zenean ez nintzen jada umea, eta orain ez dut horrelakorik irakurtzen.

### **Zergatik ez dago marrazkirik Ezekielen?**

Argitaletxearen esku dago hori, haien erabakia da.

### **Nortzuk dira Ezekielen liburuko azalean agertzen direnak?**

Ba, ez dakit ziur, baina protagonistak izango dira.

### **Zein genero duzu gustokoena?**

Harremanak gustatzen zaizkit. Pertsonen harremanak nondik norakoei jartzen diet arreta, eta horri buruz idazten dut orain. Eta irakurri ere, horrelako liburuak irakurtzen ditut.

Gaztetan genero poliziakoa eta fantastikoa gustatzen zitzaidan. Hori bai, nobela laburrak gustatzen zaizkit, ez dira 300 orrialde behar gauza sakonak kontatzeko.

### **Zenbat denbora behar duzu liburu bat idazteko?**

Garaiaren arabera. Orain idaztea da nire lanbide bakarra, eta errazago idazten dut garai batean baino. Lehen beste gauza batzuk egiten nituen, eta zailagoa zen.

*Beno, hau izan da dena. Zuen gustuko elkarrizketa izatea espero dugu, eta ea Jasoneren liburuak irakurtzera animatzen zareten!*



# EREMUKA LANEAN

**EGILEAK:** Lorea Merino, Iker López, Jokin Aguirre, Ibai Palma, Pedro Yi, Amaiar Renteria, June Urgoiti, Adelina Portarescu eta Zary Vidal.

Mundu guztiak dakienez, LHn oso maistra-maisu gutxi izaten ditugu, baina DBHra pasatzerakoan, hori aldatzen da eta irakasle pila daude, Eskurtzeko institutuan, aldiz, ikasturte honetan hasi gara “Eremuka lanean”, baina... zer da hori? Lan egiteko, eta ikasteko era desberdina da. Taldeka “erronkak” eta hainbat proiektu lantzen ditugu.

Bi eremu daude: eremu sozio-linguistikoa (astean 9 saio) eta zientifiko-teknologikoa (beste 9 saio), eta oso irakasle gutxi sartzen dira klasean (3+3).

Gure eguneroko plangintza hauxe da:

Goizeko 8:00etatik 8:30ra beti irakurtzen dugu nahi dugun liburu bat. Eta lehenengo bi saioetan eta azkenengoan eremuka egiten dugu lan: Eremu sozio-linguistikoa: Euskara, Lengua Castellana, eta Geografia eta Historia aurkitzen dira bertan eta Eremu zientifiko-teknologikoa aldiz, matematika, Biologia, eta Teknologia. Baina, zer egin dugu 2 ebaluazio hauetan? Nola egin dugu lan? Hona hemen adibide batzuk:

## Eremu sozio-linguistikoa:

### 1. ebaluazioa:

Gure lehenengo erronka **Udazkeneko gosaria** izan zen. Kurtso hasieran munduan zehar dauden urtarok ezagutu genuen eta horretarako mapamundi bat margotu genuen urtaro ezberdinak non dauden ikusteko. Eguraldi saioak ikusi genituen eta, azkenik, guk patioan gosari orekatu bat izan genuen.

Gure bigarren erronka glosario bat sortzea izan zen. Glosarioa zer den ikasi genuen, eta gero taldeka gure produktuekin glosario bat sortu genuen: 4 hizkuntza erabili genuen: latina, euskera, gazte eta ingelesa.

Gure hirugarren erronka **Meteorologia egun batez** izan zen. Lehenik klimogramak egiten ikasi genuen, eta gure azken produktua taldeka eguraldi saio bat filmatzea izan zen.

### 2. ebaluazioa:

Bi erronka izan dira nagusi:

**Baratzean Ugari, Platerean Urri:** Historiaurreari buruz doan gaia. Proiektu batzuk egin ditugu, Historiaurreko buru-mapa bat, gizakien bilakarearen ardatz kronologikoa eta paleolitoko eta neolitokoak izan zitezkeen errezetak sortu behar izan ditugu.

**PIN, PAN Landareak Dantzan:** Antzinaroari buruz doan informazioa aztertuko dugu, baina oraindik bukatu gabe dago..



## Eremu zientifiko-teknologikoa

### 1. ebaluazioa:

Gure lehenengo erronka **Udazkeneko gosaria** ere izan zen. Baina eremu honetan elikagaien gurpila, dieta orekatua eta elikagaien funtzioak aztertu genituen. Gure produktu finala patioan sozio-linguistikoekin batera gosari orekatua egitea izan zen.

Gure bigarren erronka **Meteorologoa egun batez** ere izan zen. Lehenik atmosferaren geruzak ikasi ondoren ur molekula eta propietateak ikusi genuen. Gero airea, ura eta atmosferaren kutsadura aztertu genuen. Gure produktu finala laborategian euri azidoaren praktika bat egitea izan zen.

### 2. ebaluazioa:

Sozio-linguistikoan bezala: **Baratzean Ugari, Platerean Urri** erronkan bakterioak, protoktistoak, algak... ikasi genituen.

Orain **Pin Pan, Landareak Dantzan** proiektua egiten ari gara, adibidez: Teknologian “tinker cad” izeneko programarekin egindako hazitegietan haziak landatuko ditugu. Eta gure ortua lantzen ari gara.



Klasean lan handia eta gustura egiten dugu, baita kalean ere! Eremuekin lotutako IRTEERAK ere egin ditugu, adibidez:

Udazkeneko gosaria: ERRIBERAREN MERKATUra bisita gidatua egitera joan ginen. Bilbon merkatu garrantzitsuena denez, hor sasoiko produktuak ikusi, eta batzuk erosi gure ha-maiketakorako.

Meteorologoa egun batez: EITBra Eguraldi saio baten grabazioa ikustera joan ginen. Han nola grabatu eta nola bildu datuak EGURALDIA azaltzeko ikasi genuen. Oso interesgarria izan zen eta gainera asko lagundu gintuzten.

Irakurketa plan: ELKAR LIBURUDENDA eta MEDIATEKA

Egunero gustora irakurtzeko eta aspergarri ez izateko, egun batean Mediateka bisitatu ondoren, Elkar liburudendara joan ginen. Han oso liburu interesgarriak aukeratu genituen klase-ramateko. Ia ia liburu guztiak irakurri ditugu, oso jarduera interesgarria izan zen.

Euskal kultura: EUSKARAREN ETXEA Beste egun batean Euskararen etxera joan ginen. Han euskararen historia kontatu ziguten, neska jator bat zegoen. Ikasi genuen euskara oso hizkuntza zaharra eta polita dela eta asko erabili behar dugula ez galtzeko. Oso ondo pasatu genuen eta asko ikasi genuen gure hizkuntzari buruz.



# Zer da Zereginak Ikasteko Gela (ZIG)?

Hezkuntza premia bereziak dituzten eta DBHko titulua lortu ez duten 16 eta 20 urte bi-tarteko ikasleak lan munduan sartzeko egokitutako prestakuntza da. Bere ezaugarri nagusia ikasketetatik helduen bizitzara eta lan mundura pasatzeko zubia izatea da.

Zereginak ikasteko gelako talde bakoitzean ikasle-kopuru txikia sartzen da, hamar baino gehiago ez, eta beti haien beharrianak kontuan hartuta.

Zereginak ikasteko curriculuma bi ziklotan dago egituratuta: lehen zikloa edo oinarriko ikas-kuntzen zikloa, eta bigarren zikloa edo ikaskuntza espezifikoen zikloa praktikekin.

Zereginak ikasteko gelari buruz gehiago jakiteko, ikasturte honetan ikasketak amaituko duten bi ikaslerekin (Ander eta Mali) eta ikasturte honetan hasi diren bi ikaslerekin (Nadia eta Luken) hitz egingo dugu.

**Ander eta Malirekin hasiko gara, ikasturte honetan amaituko baitituzte ikasketak. Zer gustatu zaizue gehien ikastetxean eman dituzuen urteetan?**

Ander: Irteerak, gelan izan den giroa eta ikaskide guztiak ezagutzea.

**Eta Mali, zuri?**

Gehien gustatu zaidan irakasgaia zurgin-tza izan da; jende berria ezagutzea ere bai.

**Beste zikloetako ikasleekin harremanak dituzue?**

A: Bai, duela gutxi Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako zikloko ikasleekin egon gara, eta horiekin bide-segurtasunari buruzko jarduerak egin ditugu.

M: Turismo zikloko ikasleekin bisita turistikoa egin genuen Bilbon, eta Bilboko hainbat leku erakutsi zizkiguten.

**Egin al duzue praktikarik? Non?**

A: Lorezaintzan egin ditut praktika USOA enpresarekin, eta Aste Santuaren ondoren beste praktika batzuk egingo ditut.

M: Hirugarren urtean bi hilabete eman nintuen praktikak egiten ASPALDIKO zaharren egoitzan, eta abuztuan hilabete horretan lan egiteko kontratatu ninduten. Orain praktikak egiten ari naiz HASZTENekin, otsailetik ekainera. Kirol egokituko elkarte bat da HASZTEN, eta hainbat tokitara noa metroko linea guztiak hartuta: Sopela, Lamiako, Gobelak, Barakaldo...







**Ikasten jarraituko duzue?**

A: Segur aski, bai.

M: Bai, baina oraindik ez dakit zer.

**Orain ikasturte honetan hasi diren ikasleei galdetuko diegu. Zer alde dago zure ikastetxe zaharrenean eta honen artean?**

Luken: Ikastetxe honetan baratze bat dugula eta beste zentroan ez dagoela baratzik.

Nadia: Nire eskola zaharrean ez nuen baratzik lantzen, ezta zurik ere...

**Zer jarduera gustatzen zaizu gehien?**

L: Sukaldea, zurgintza eta informatika.

N: Natu-Geo, sukaldea, musika-terapia eta baita igerilekura joaten garenean ere...

**Zure ustez, ikaskide zaharrenek jarraitu beharreko adibideak dira?**

L: Bai, Ander eta Mali beste maila batean daudelako, praktikak egiten ari direlako eta horretara iritsi nahi dudalako.

N: Bai, batez ere Mali, asko lagundu nau eta.

**Parte hartzen duzue ikastetxean antolatzen diren jardueretan? (Euskararen eguna, Emakumearen eguna...).**

L: Bai, nik Euskararen Egunean txingak bezalako jardueretan parte hartu nuen, eta oso ondo pasatu nuen.

N: Bai, gustuko ditut.



# BITXIKERIAK

## ASTEKO BERBA

*Sumaiya Abdul Begum DBH 2D-1*

Institutukoko normalkuntza taldeak Asteko Berba (ASTEKO BERBA - HASTEKO BERBA - HAZTEKO BERBA) izeneko proiektua jarri zuen martxan, astero hitz berri bat ezagutzeko helburuarekin.

Astelehenetan institutura natorrenean sarrean ikusten dut hitza eta gero irakaslea ikasgelara sartzen denean esanahia azaltzen digu. Horrek niri hitz berriak ezagutzeko balio dit eta beraz, proiektu interesgarria iruditzen zait.

Guztien artean ahalegin hitza azpimarratuko nuke. Izan ere, hitz honen esanahia niretzat oso garrantzitsua da. Zerbait lortzeko AHALEGIN ikaragarria egin behar dut.



## OILOTEGIA

*Enrique Cortés DBH-3D*

Egun batean, Joeli eta bioi institutura oiloak ekartzeko ideia bururatu zitzaigun eta zuzendaritari komentatu genion. Baietza eman zigun eta oilar bat, 2 oilo eta 6 txita handi ekarri genituen.

Orain handitu egin da familia. Guk etxean hainbat ditugu eta badakigu hauek ondo zaintzen. Jatekoa ematen diegu, sendatu egiten ditugu eta garbitu egiten diegu beraien etxetxo.



## PATATA TORTILLA

### *Gela egonkorra*

Astelehenak bereziak dira gure institutuan, gela egonkorreko ikasleok patata tortillak prestatzen baititugu atsedendian banatzeko eta horrela asteko lehenengo eguna ez zaigu hain aldats gora egiten. Goizeko lehen ordutik ibiltzen gara patatak zuritzen, tipula txikitzen, zartaginean olio berotzen eta arrautzak irabiatzen talde lanean. Aurreko astean erosketaz errenda osatzen dugu eta erosketak egitera joaten gara.




## EUSKAL DIGI GELA

### *DBH 1B Taldea*

Gure institutuan euskara indartzeko eta ikasleen motibazio mailak gorakada izugarria izateko Euskal Digi Gela egitasmoa martxan jarri da aurrean. 2. solairuko gela bat berriztu eta apaindu dugu; PlayStation bideokontsolak, errealitate birtualeko betaurrekoak, kroma berdea duen pantaila erraldoia eta azken teknologia duten 3 ordenagailu gamer eserlekuekin eta argiztaturiko teklatu eta arratoiekin. Euskaraz gehien ahalegintzen diren ikasleak izango dira lehenengoak gela estreinatzen eta gero ikasle guztiek, talde txikietan, disfrutatzeko aukera izango dute. Proiektu honek berdintasuna eta hezkidetzaren bultzatu nahi ditu eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diruz lagundutako Eraldatzen izeneko proiektu orokor baten barruan dago.





ELGERA 24